



www.vitoria-gasteiz.org

Aldi baterako kontratazio-zerrenda handitzeko deialdia

***Lanpostua: Arte Eszenikoetako teknikari espezialista***

***1. ariketa***

***GALDERAK***

- ***53 galdera***
- ***Denbora, gehienez: 120 min.***
- ***Erantzun-orrian idatzi erantzunak. Proba bukatzean, galdetegi hau zeurekin eraman ahalko duzu.***

Deialdia: 2016/09/06


Eredua:

**D**

**Ez ireki esan arte.**


1. Nola deritzo 2:1 erlazioak bereizten dituen bi noten arteko maiztasun-tarteari?
2. Zein da soinu-presioa —NPS, *nivel de presión sonora*, edo SPL, *sound pressure level*— neurtzeko unitatea?
3. Maiztasun entzungarri guztiak giza belarriaren ezaugarrietara —hau da, giza belarriak guztiak itxura batean intentsitate berarekin hautemateko maiztasun bakoitzak izan beharko lukeen soinu-presioaren mailara— doitutako anplitudearekin emititzen dituen zaratari honela deritzo: zarata....
4. Nola deritzo mikrofono-klabeetan gehien erabiltzen den audio-konektoreari, zeinek hiru pin baititu, eta segurtasun-saskitxo bat, nahigabeen atera dadila galarazteko?
5. Bozgorailu-multzo batean interferentziarik izan ez dadin maiztasunen artean eta elkar baliogabetu ez dezaten, bozgorailu horiek egon beharko dute...
6. Zein abiaduratan transmititzen da soinua airean barrena?
7. Hass efektuak deskribatzen du giza garunak ez duela bereizten 5 eta \_\_\_\_ ms arteko tarteekin iristen zaizkion soinu independenteen jatorria.
8. Zein da maiztasun entzungarrien tartea, gizakion belarrirako, eta zenbat zortzidunetan banatzen da?
9. Soinu-banda baten zein hiru parametro kontrolatzen dira ekualizadore parametrikoko batekin?
10. Zertarako baliatzen du *phantom* elikadura soinu-mahai batek?
11. Zer adierazten du bideo-proiektore baten proiektzio-faktoreak?
12. Zein da full HD bideo-irudi baten bereizmena?
13. Zein erabilera du HDMI konektorea duen kable batek?
14. Zein gailu elektronikok bihurtzen du orekatu gabeko seinalea seinale orekatu?
15. Nola deritzo pala edo biserak erabiltzeko beharrik gabe argi-sortaren forma aldatzeko aukera ematen duen argiztapen-proiektore konbentzionalari?
16. Argiaren ezaugarrietako bat kolore-tenperatura da. Zein kolore-tenperaturatik aurrera esan ohi dugu eguneko argia dela?
17. Zer gertatzen da PC foku baten argi-sortan, lanpara leiarretik urruntzen dugularik?
18. Oso garrantzitsua da DMX katea osatzen duen azken ekipoa linea-terminaleko erresistentzia jartzea. Terminal hori gabe, transmisioa ezegonkorra izan daiteke, eta eragozpenak sor daitezke. Sistemarik sinpleena XLR konektore har bat izan ohi da, erresistentzia batekin, 2. eta 3. pinen artean. Zenbat ohmekoa izan behar du erresistentzia horrek?
19. Zeren arabera da PAR lanpara baten argi-sortaren zabalera?
20. Adieraz itzazu koloreen gehitze-nahasturatik ateratzen diren bi kolore sekundario:
21. Zein da DMX *splitter* baten erabilera?
22. Zein parametro elektriko aldatzen da *dimmer* baten irteeran?

23. Proiektore hauetatik, adierazi zein erregulatzen diren *dimmer* baten beharrik gabe: Par 64, Aircraf seriea, Tomasitoak, Par Led, Fresnel, Panoramas, HMI buru mugikorra, Mozte-proiektorea.
24. Nola deritze deskarga presio baxuko merkurioan egiten duten lanparei?
25. Foku robotizatu batean, zeri egiten diote erreferentzia PAN eta TILT kontrolek?
26. Zein da Omhen legearen adierazpena?
27. Zeharkako kontaktua gertatuz gero, zein babes-tresnak saltatu beharko luke?
28. 380 v-ko instalazio trifasiko batean, fasearen eta lurraren arteko neurria \_\_\_\_\_koa izango da.
29. Noiz konektatuko dugu lur-kablea magnetotermikoaren poloetako batekin?
30. Gehienez 20 A-ko intentsitate baterako, neutroa eta lurra duen kobrezko eta PVCzko eroale trifasiko baten sekzioa gutxienez honenbestekoa izango da: \_\_\_\_\_
31. Zer adierazten du produktu elektriko baten IP kodearen bigarren zifrak?
32. Zein da zirkuitu bateko etengailu magnetotermikoaren funtzioa?
33. Zein korrante diferentzialarekin salto egiten du sentsibilitate handiko etengailu diferentzial batek?
34. Zein potentzia lortu daiteke 100 A-ko hargune elektriko trifasiko batetik?
35. Ahokaduraren goiko mugaren gainetik geratzen den tramoia-dorrearen zona guztia, non leku hartzen duten oihalek, foku-hagek, dekoratuek eta bestek orraziaren egituratik eskegita, honela deitzen da: \_\_\_\_\_
36. Zenbat ildo izan behar ditu soka luze, ertain eta motzek osatutako ebaki bakarreko buru-polea orekatu batek?
37. Agertokiko zoruan jarri ohi den dekoratu-pieza lau pintatua, eta altuera txikikoa, honela deitzen da: \_\_\_\_\_
38. Ikusleentzat erdi-ezkutuan geratzen diren bi hankaren arteko espazioei honela deitzen zaie: \_\_\_\_\_
39. Adieraz ezazu modu uniforme banatutako karga baten zein ehuneko jasaten duen euskarri bakoitzak



40. Dekoratu ezkutatzeko agertokiaren ahoarekiko perpendikular egiten delarik, honela eginda dagoela esan ohi da: \_\_\_\_\_

41. Eszenografia bati gagozkiolarik, zer esan nahi du ezkutatze-lana egiteak?
42. Marrazkikoa bezalako bi adarreko eslinga batean, adieraz ezazu, gutxi gorabehera, zein koefizienterekin biderkatu behar den karga eslingaren esfortzu osoa kalkulatzeko, ematen diren alfa angeluaren balioetarako.



43. Zer adierazten dute WLL - CMU siglek karga jasotzeko elementu batean?
44. Zeren arabera izaten da kablearen bukaeran jartzen diren U formako buloi-besarkagailuen kopurua?
45. Eman itzazu lehen begiratu batean goratzeko gai den bilur bat eta gai ez den beste bat bereizten dituzten bi ezaugarri.
46. Zertarako balio du ziklorama baten zorroak?
47. Zer da sistema berdindu baten aingura?
48. Nola deitzen zaio langileak lanpostuan izan ditzakeen arrisku guztiak jasotzen dituen dokumentuari, zeinen arabera finkatzen baitira beharrezko diren segurtasun-neurriak?
49. Noiz uko egin diezaieke langileak, bere borondatez eta idatziz, nahitaezko diren *norbera babesteko ekipamenduei*?
50. Zein dokumentu kontsultatuko zenuke jendea bildu daitekeen lokal bateko instalazio elektrikoa egokia den jakiteko?
51. Agertokiko makineriaren erabilera araudi europar orokorrago baten mende dago. Zein da?
52. Edozein motatako mantentze-lan elektrikoak egiterakoan, hainbat maniobra egin beharko dituzu zeure segurtasuna bermatzeko. Zerrenda itzazu gutxienez bi:
53. Hainbat dira jendea bil daitekeen lokalen segurtasuna arautzen duten legeak. Izenda itzazu bi.